

## MAHAI SEKTORIALA

**OPOSIZIO-LEHIAKETAREN DEIALDIA, SARTZEKO, IGOTZEKO ETA ESPEZIALITATE BERRIAK ESKURATZEKO**

**BIGARREN HEZKUNTZAKO KIDEGOA, HEO ETA LANBIDE HEZIKETAKO SEKTORE BEREZITAKO ESPEZIALISTAK**

### **DEITUTAKO ESPEZIALITATEAK**

Letren zozketa: **UT**. Letra hauek kontutan hartuko dira oposizioaz aparte beste prozesuetarako: Zuzendaritzen berritzerako, proiektu eta programen zerbitzu eginkizunetarako,...

Deialdia 3-4 astetan argitaratuko da (**zirriborroa**).

276/2007 Errege Dekretuaren arabera egingo da; beraz, **probak kanporatzaileak** izango dira:

Proba praktikoa eta gaia %30; programazioa eta unitate didaktikoa %70.

Programazio didaktikoa **telematikoki** emango da.

Oposizioaren informazio aplikaziorako sarbidea mugatua izango da eta soilik parte-hartzaileek izango dute sarbidea.

**Bigarren proban** (programazioa eta unitatea), ez da beharrezkoa izango zati bakoitzean gutxienez 2,5 ateratzea, nahikoa da batz bestea 5 ateratzea. Lehenengo proban nahitaez 2,5 zati bakoitzean

Funtzionarioek **espezialitate berriak eskuratzeko deialdia ere** izanen da.

**Azterketak ekainean izanen dira.**

**Lanbide Heziketako euskerazko** espezialitate batzuetan epaimahaiak eratzeko arazoak. Beste erkidego batzuetako epaimahaikiderik lortzen ez badute, Euskarabideatik egingo dira itzulpenak, (epaimahaikide erdaldunekin) baina epaimahaiko 40 hautagaiko muga jarri dute.

Kasu hauetan **azterketaren data aurreratzea** posible izango da, hautagaien kopuruaren arabera.

**Prozesu Komertzialak:** plaza kopurua murriztu egin da aurreko proposamenarekin alderatuz, prozesu judizial baten ondorioz.

Zuzendaritza taldeko kide guztiak epaimahai izatetik kanpo uzten saiatuko dira.

Lanbide Heziketarako, deialdiaren unean indarrean dauden dekretuak hartuko dira kontuan.